

Euli sarraskijaleak ugaztunen dibertsitatea neurtzeko

Haratustelaz elikatzen diren euliak abilak dira animalien gorpuak aurkitzen, eta abilezia horri etekina atera diote ikertzaile alemaniarrek. Edozein biologok egin lezakeen baino DNA-laginketa hobea egiten dute euli sarraskijaleek, gorpuez elikatzean. Eta ikertzaileek ikusi dute DNA horrek nahikoa irauten duela eulien barruan, sekuentziatu eta jatorrizko animalia identifikatzeko. Hala, ugaztunen dibertsitatea neurtzeko metodo errentagarri gisa proposatu dute *Molecular Ecology* aldizkarian.

Kasu askotan animalien banaketa eta ugaritasuna jakitea oso zaila izaten da. Baso itxiak ongi aztertzea ia ezinezkoa izan daiteke, esaterako. Sarri, oinatzak, gorotzak eta halako arrastoak baino ez dira izaten eskuragarri, eta horiek atzemateak ere lan handia

eskatzen du. Ikerketa honetan, ordea, erakutsi dute euliek egin dezaketela lan hori. Euli sarraskijaleak mundu osoan daude, lehorreko ia edozein ekosistematara, ugariak dira, eta harrapatzeko errazak.

Eulietatik gorpuen DNA berreskura zitekeela frogatu zuten lehenik ikertzaileek. Eta gero 115 euli harrapatu zituzten, ausaz, Cote d'Ivoireko eta Madagaskarko baso banatan. Eulien % 40an atzeman zuten DNA identifikagarria. Cote d'Ivoiren 16 ugaztun identifikatu zituzten —ezagutzen diren 9 primateetatik 6, eta desagertzeko arriskuan dagoen antilope arraro bat barne—,




Calliphora vomitoria euli sarraskijalea. ARG.: J.J. HARRISON/CC-BY-SA.

eta Madagaskarren ugaztunen % 13. Ikertzaileen esanean, zenbaki azpimarragarriak dira, laginketa txikia dela kontuan hartuta. ●

Entzumenaren parte bat berreskuratzekeo terapia garatu dute

Lehenengoz ugaztunen artean, zaratak gortutako saguen barne-belarriko iletxoak birsortu dituzte



Goian, ile-zelula osasuntsuak; behean ezkerrean, kaltetutako koklearen irudia, eta, eskuinean, tratatutakoarena. ARG.: MASSACHUSETTSEKO BEGIA ETA BELARRIA ZENTROA ©.

Massachussetseko Begia eta Belarria zentroko ikertzaileek zaratak gortutako saguek entzumenaren parte bat berreskuratzea lortu dute, kokleako iletxoak birsortzeko gaitasuna eman dien terapia baten bidez. Hegazti eta arrainetan ez bezala, ugaztunen barne-belarriko iletxoak ez dira berez birsortzen kaltetuz gero, eta, ondorioz, galdutako entzumenaren berreskuratzea askoz ere nekezagoa da.

Massachussetseko ikertzaileek garatutako terapiaren bidez, kaltetutako iletxoaren inguruko beste zelulak bereiztu, eta ile-zelula berri bilakatzen dira. *Neuron* aldizkarian berri eman dutenez, gamma-sekretasa entzimaren inhibitzaile batekin tratatutako

barne-belarriko zelula amak ile-zelula bihurtzen zirela ikusi zuten ikertzaileek lehenengo; ondoren, molekula hori bera saguen barne-belarrarian txertatu zuten. Entzimak Notch proteinaren seinalea inhibitzen du iletxoaren inguruko zeluletan, eta, seinalearen inhibitzioak eragiten du zelula horiek ile-zelula bihurtzea. Ikertzaileek egindako neurketetan frogatu dute korrelazioa dagoela entzumenaren hobetzearen eta ile-zelula berriak sortu ziren eskualdeen artean. Ugaztun helduetan barne-belarriko iletxoak birsortzea lortzen den lehen aldia da hau, eta ikertzaileek uste dute gorrierantz terapiak sortzeko aukera on bat dutela aurrean. ●